



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

66. INFORMAZIO BULETINA

> 2012ko Apirila



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

- > Europako Kontuen Auzitegiak Batzordeak egitura-funtsen kudeaketarako eta kontrolerako sistema hobetzeko duen zeregina ziurtatu du

Europako Kontuen Auzitegiaren azken txostenak baieztatu du Europako Batzordeak estatu-kideek egitura-funtsak kudeatzeko eta kontrolatzeko dituzten sistemak hein batean zuzentzea eta hobetzea lortu zuela.

Europako Kontuen Auzitegiak txostenean ondorioztatu du Batzordeak neurri zuzentzaile egokiak hartzen dituela estatu kideen sistemetan gabeziak detektatzen dituenean, baina aplikazio-prozesua motela dela.

Hori horrela, Europako Kontuen Auzitegiak hainbat gomendio egin dizkio Batzordeari. Hona hemen horien artean aipagarrienak: administrazio-prozeduraren iraupena murriztea gabeziak detektatzen direnetik neurri zuzentzaileak aplikatzen diren arte; lehenetsun handiagoa ematea ikuskaritzako agintarien kontrolerako lanari, ahalik eta errore-portzentaje txikiak lortzen dituztela bermatuz; eta egiaztapen-zerrendak hedatzea dagokien agintariek jardunbide egokiak eredu gisa erabil ditzaten.

Informazio gehiago:

<http://eca.europa.eu/portal/pls/portal/docs/1/14090743.PDF>

- > Gipuzkoako Foru Aldundiak gazteak zer Europa nahi duten eztabaidatzera animatu nahi ditu *Nik nahi dudan Europa* lehiaketarekin

Europako Egunaren ospakizunak direla eta (maiatzaren 9a), Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismo Departamentuko Kanpo Harremanetako Zuzendaritzak "*Nik nahi dudan Europa*" lehiaketa jarri du abian.

Lehiaketaren helburua sare sozialen bidez Gipuzkoako gazteek nahi duten Europako ereduari buruzko hausnarketa egitea da. Horretarako, Facebook sarean profila sortu da, bertan gazteek Europa nolakoa izatea nahi duten adierazteko. Bertan, 500 eta 800 karaktere arteko testua idatzi edo bideo laburra erantsi beharko dute.

Lehiaketan parte hartzeko epea ekainaren 8an amaituko da eta irabazlea herri-bozketa bidez aukeratu dute. Saria Europa guztian bidaiatzeko hiru Interail txartelen sorta izango da. Lehiaketako parte-hartzaile guztien artean beste Interail txartelen sorta bat zozkatuko da.

Informazio gehiago:

<http://www.facebook.com/NikNahiDudanEuropa>

<http://gipuzkoa.tv/play.php?vid=2504>



> Donostia, 2016ko Europako Kultur Hiriburua da ofizialki

Europar Batasuneko Kultura Ministroen Kontseiluak berretsi egin du Donostiaren izendapena. 2016ko Europako Kultur Hiriburu izango da Donostia.

Gipuzkoako hiriburua Poloniako Worclaw hiriarekin batera izango da 2016an Europako Kultur Hiriburu. Donostiak, hemendik aurrera, Europako bizitza artistikoan eta kulturean parte hartzen duela erakutsi beharko du eta, horretarako, hainbat jarduera eta ekimen egingo ditu Europarekiko dituen lotura kulturalak eta nortasun europarra estutzeko.

1985etik, Europako Kultur Hiriburuak Europako kulturen aberastasuna eta aniztasuna nabarmentzeko, europarren arteko lotura kulturalak indartzeko eta estatu-kideetako herrialdeetako pertsonen arteko ulermena sustatzeko aukeratzeko dira. Momentuz, 40 hiri baino gehiago izendatu dira eta 2019 arte, urtero izendatuko dituzte estatu-kideetako bi hiri Europako kultur hiriburu gisa.

Informazio gehiago:

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=MEMO/12/319&format=HTML&aged=0&language=EN&guiLanguage=en>

<http://www.sansebastian2016.eu/web/guest/inicio>

> Erasmus programak beka lortutako ikasle kopuruaren errekorra hautsi du bere 25. urteurrenean

Erasmus programa duela 25 urte jarri zen abian, 1987an, goi mailako ikasketen kalitatea hobetzea eta ikasketa horien dimentsio europarra indartzea dira. Horretarako, lankidetzak transnazionala sustatzen du unibertsitateen artean, Europako mugikortasuna sustatzen du eta Europar Batasun osoan ikasketen eta prestakuntzen gardentasuna eta aitorten akademikoa hobetzen du. Inguruan beste plan batzuk ere baditu; guztira 33.

1987an abian jarri zenetik, programak Europako 2,5 milioi ikasleri baino gehiagori atzerrira joan eta ikasketak edo enpresa batean praktikak egiteko aukera eman die. Programan hiru milioi ikasleri beka ematea dago aurreikusita 2012-2013 ikasturtearen amaieran.

Abian jarri zenetik hogeita bosgarren urteurrena ospatzeaz gain, Erasmus programak partaidetza-maka hautsi du 2010-2011 ikasturtean. Azken ikasturtean, adibidez, 231.000 ikaslek baino gehiagok jaso dituzte atzerrian ikasteko edo trebatzeko Erasmus beka; hau da, aurreko urtean baino % 8,5 ikasle gehiagok. Gainera, programa abian jarri zutenetik, ikasle-trukearen beste marka bat hautsi dute horrela.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/education/erasmus>

http://ec.europa.eu/education/erasmus/doc920_en.htm



KOHESIO-POLITIKA

> Lankidetzarako Europako Jarrera Kodea: Nola indartu lankidetzarako printzipioa Europako funtsetarako?

Europako Batzordeak jarrera-kode berri bat aurkeztu du eta hor sartu ditu Europako funtsen lankidetzarako oinarrizko printzipioak. Printzipio horiek gidalerro gisa erabili beharko dituzte EBeko herrialdeek, kolaboratzaileek Europako funtsen bidez babestutako proiektuen aplikazioan behar bezala parte hartzen dutela bermatzeko.

Lankidetzarako printzipioa Europako funtsen kudeaketarako printzipio garrantzitsuenetako bat da. Printzipio horren bidez, eskualdeetako eta tokiko agintariek, kolaboratzaile ekonomikoek eta sozialek eta gizarte zibila ordezkatzeko duten erakundeek, kohesio-politikaren prozesu osoan gertutik eta modu aktiboan inplikatu behar dute (programen prestaketa, aplikazioa, jarraipena eta ebaluazioa).

Lankidetzarako jarrera-kodeak Europako bost funtsei eragiten die: Kohesiorako funtsa, Eskualde Garapenerako Europako Funtsa, Europako Gizarte Funtsa, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa eta Itsas Gaietarako eta Arrantzarako Europako Funtsa.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/working/strategic_framework/swd_2012_106_en.pdf

> Eusko Jaurlaritzak antolatutako *Non ikusten duzu Europa Euskadin?* argazki-lehiaketako sari-banaketa

Europaren Eguna ospatzearen harira, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak Facebook-eko lehen argazki-lehiaketako sari-banaketa egin du. Non ikusten duzu Europa Euskadin? Horixe lehiaketaren izenburua.

Lehiaketa euskal gazteei Europar Batasunak Euskadin dituen balio positiboen berri emateko ekimen berritzailea izan da. Balio horiek, besteak beste, Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren laguntzekin lotutakoak dira. Hori guztia egiteko argazkiak egin eta botoak eman dizkie jendeak.

Jendeak emandako botoei esker sari bat irabazi du Julen Mercader gipuzkoarrak. Beste irabazle batzuk ere izan dira: Bizkaiko Lara Burgoak epaimahaiaren lehen saria jaso du eta Bizkaiko Ivan Rosak epaimahaiaren bigarren saria.

Informazio gehiago:

<https://www.facebook.com/feder.ejgv>



> Kosmodisea lehiaketaren azken ekitaldia egin zuten talde irabazleei sariak banatzeko

Pasa den ostiralean, maiatzak 4, Donostiako Kursaal Jauregian izan zen Kosmodisearen 2011-2012ko amaiera-ekitaldia. Kosmodisea Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Departamentuak sustatutako lankidetzarako jokia da. Europar Batasuneko Europako Gizarte Funtsak % 50eko laguntza ematen dio 1. lehentasun-ardatzaren (Enpresa-espirtua sustatzea) bidez.

Amaierako ekitaldian programan parte hartu duten 1.4000 eskola-umetik gora bildu ziren eta lehiaketaren seigarren edizioko talde irabazleak zein ziren jakinarazi zen. Lehiaketaren helburua Gipuzkoako gazteen artean talde-lana, sormena, ekintzaile izatea, ekimena eta berrikuntza barneratzea da, horretarako IKTak erabiliz.

Informazio gehiago:

<http://www.kosmodisea.net>

<http://www.kosmodisea.net/noticias/noticia-detalle.php?l=es&id=9324>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Enplegua sortuko duen susperraldirantz: Europa 2020 Estrategiaren enplegurako helburua lortzeko tresna berriak

Enplegua sortuko duen susperraldirantz izenburupean, Batzordeak Europako Parlamentuari eta Eskualdeen Batzordeari beste jakinarazpen bat igorri die enplegu gaietan orain arte ezarritako lehentasunak epe ertainerako lanerako jarraibideekin osatzeko, horrela, Europa 2020 Estrategian ezarritako helburuak betetzeko.

Europako Batzordearen Komunikazioak dio Europa 2020 Estrategiak 20-64 urteko herritarren artean enplegu-tasa % 75ekoa izateko ezarritako helburua lortzeko jarduera iraunkorrek egiten dituzten enpresa txikietara eta ertainetara bideratu behar dela enplegua sortzeko laguntza.

Horretarako, tresnen artean honako hauek dira aipagarrienak:

- diru-laguntzak beste egoera batzuetan sortuko ez liratekeen kontratazio berriei zuzentzea
- inposizioa enplegutik kendu eta ingurumenera, kontsumora edo jabetzara zuzentzea
- norberaren konturako lana sustatzea eta babestea; baita enpresa sozialak eta enpresa berriak ere
- lan informala enplegu arautu bihurtzea
- “benetan jasotako” soldata hobetzea
- soldata-sistema modernizatzea produktibitatearekin eta enplegua sortzea sustatzearekin bat etorritz

Eta hazteko potentziala hiru funtsezko sektoretan baliatzeko proposatu du: ekonomia ekologikoa, osasun-eta gizarte-laguntza eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2012:0173:FIN:ES:PDF>



> 2013rako aurrekontu-proiektua: inbertsioa hazkundean eta enpleguan

Apirilaren erdialdera, Europako Batzordeak Europar Batasunaren 2013rako aurrekontuen proiektua aurkeztu zuen eta aurrekontu horien bidez Batasunean hazkundea eta enplegua lortzea da helburua.

Batzordearen proposamenak estatuetakoa ahaleginak areagotzeko hainbat neurri biltzen ditu eta inbertsioa Europa 2020 Estrategian zehaztutako lehentasunetan kokatzen du. Egoera ekonomiko zaila eta aurrekontu nazionalen gaineko presioa ere aintzat hartzen ditu.

Europar Batasunak 2013rako duen aurrekontu-proiektua 150.900 milioi eurokoa da konpromisotan, iazkoa baino % 2 handiagoa.

62.500 euro bideratu dira Europan enplegua sortuko duen hazkundea sustatzeko. Hainbat programatarazuzendutako ahaleginak gora egin du; hona hemen horietako batzuk: egitura-funtsak eta kohesio-funtsak (49.000 milioi euro, % 12ko igoera), ikerketa (9.000 milioi, % 28ko igoera 2012an), berrikuntza eta lehiakortasuna (546 milioi euro, % 48ko igoera) eta etengabeko ikaskuntza (1.200 milioi euro, % 16ko igoera).

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/budget/index_en.cfm

http://ec.europa.eu/budget/figures/2013/2013_en.cfm



> Europak agerian jarri du kooperatibek hazkuntzan eta enpleguaren sorreran duten garrantzia

2012an, *Kooperatiben Nazioarteko Urtea* ospatzen ari garen honetan, Kooperatiben Astea egin dugu Bruselan. Enpresaburu sozial horiek Europako ekonomiari eta Europa 2020 Estrategiari egiten dioten ekarpena azertu dugu ekimen horretan.

Ekitaldiak erakutsi du enpresa-eredu horiek Europako ekonomian eta industrian duten garrantzia. Europar Batasuneko hiru herritarretatik batek kooperatiba batean egiten du lan eta merkatu-kuota handiak dituzte estatu-kide gehienetako industrietan, batez ere, nekazaritzan, basozaintzan eta bankuetan.

Batzordearen iritziz, beraz, Europa 2020 Estrategiaren helburuak lortzeko lehentasunezko tresna bihurtu diren enpresa-ereduak dira kooperatibak. Estrategiaren helburua hazkunde ekonomiko zentzuduna, iraunkorra eta sozialki baztertzaila ez dena lortzea da. Horregatik, Europako Batzordeak, enpresa-eredu hau sustatzeko neurriak hartu nahi ditu, besteak beste, Europako Kooperatiba Sozietatearen Erregelamendua sinplifikatuz eta egiten dituzten mugaz eta nazioz bestaldeko jarduerak errazteko tresna juridiko egokiak eskura jarritz.

Informazio gehiago:

<http://www.coopseurope.coop/>

http://www.coopseurope.coop/sites/default/files/2012_04_26_EU%20HIGHLIGHTS%20COOP%20CONTRIBUTIONS%20TO%20GROWHT%20AND%20JOBS.pdf



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Enpresa txikiek eta ertainek euroguneko finantzaketara duten irisgarritasunari buruzko galdera-sorta (Europako Banku Zentrala)

Euroguneko enpresa txikiek eta ertainek duten finantza-egoerari, dituzten beharrei eta azken sei hilabeteetan aurreko sei hilabeteekin alderatuta finantzaketa lortzeko izan duten gaitasunari buruzko informazioa eskaintzen du sei hilean behingo inkesta honek.

Argitaratutako azken emaitzen arabera, euroguneko enpresa txikiek eta ertainek dituzten kanpo-finantzaketarako beharrak areagotu egin ziren 2011ko urritik 2012ko martxora. Banketxeetako maileguak lortzeko irisgarritasunak okerrera egiten jarraitu zuen eta bankuetako maileguak lehen baino gutxiago lortu dituztela dioten enpresen ehunekoa igo egin da (% 20 eta aurreko inkestan % 14). Horrez gain, atzera botatako mailegu-eskaeren proportzioa ere igo egin da pixka bat (oraingoan % 13 eta aurrekoan % 10).

Informazio gehiago:

<http://www.ecb.europa.eu/stats/money/surveys/sme/html/index.en.html>

> Euroguneko hiruhilekoko txostena. 2012ko lehen hiruhilekoa (Europako Batzordea)

Europako Batzordeak hiru hilean behin euroguneko ekonomia eta finantza arloko gaiei buruz argitaratzen dituen txostenen bildumako edizio berria.

Azken txosten honek desoreka makroekonomikoaren (MIP) prozeduraren azterketa sakon bat aurkeztu du. MIP tresna desoreka makroekonomikoak zaintzeko erabiltzen da eta erreformen gobernantza ekonomikoaren "six-pack" berriaren barruan sortu zen. E

Txostenak zergek euroguneko sendotze fiskalari egiten dioten ekarpena ere aztertzen du; baita kapital publikoak eta pribatuak euroguneko herrialde ahulenetara egiten dituen fluxuak ere. Txostenaren azken atalak eurogunea zor subiranoaren CDSen eraginpean zenbateraino dagoen ebaluatzen du. CDSak estatuek zor subiranoa ez ordaintzearen aurrean estaldura ematen duten kreditu deribatuko produktuak dira.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/economy_finance/publications/qr_euro_area/2012/pdf/qrea1_en.pdf



> Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Europan, 2012 (Eurostat)

Europako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako adierazle nagusien bilketa. Txostenean azaldutako emaitzek Europako azken aldiko bilakaera eta errealitatea azaltzen dute gai hauei dagokienez: I+G, berrikuntza-prozesuak, goi mailako teknologiako industriak, ezagutzaren kudeaketan oinarritutako zerbitzuak, patenteak, zientziara eta teknologiara bideratutako giza baliabideak...

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-GN-12-001/EN/KS-GN-12-001-EN.PDF